Identifika itzazu beheko testuan dauden Euskara Arkaikoaren arkaismoak. Eskema honi jarraitu:

- Aoristo perifrastikoa: 1 *jaio zitezen*.
- *a* + *o* bokal bilkura gordetzea: 23 *aita-amaoc*.

## Jaio zitezen maiatz ilean...

Jaio zitezen maiatz ilean,
amorioa oekin;
donzelleari Lora ereitzan,
morroeorri Don Martin.
Egun batean jaio zitezen,
Jaun Zerukoak gurarik,
oen gañean jasarri zidin
amoremina dulzerik.
Mundua mundu formaduzkero,
oi ez da jaio semerik
ene ostean nor izan dan
au baño gizon firmerik.
Etse banatan bizi zirean,
zeñak eusten alkarri;
eurak biak oi ebilzen
bapere baga lagunik
gazte zirean artean, baña
azkero beti loturik.
Zerren guztiak egon joazen
andiro admiradurik
oi nola beti ebilten diran
Martin da Flora bakarrik,
aita-amaok efini daue
Flora oi enzerradurik,
zerren bertati jarri zirean
sospetxa gatxez beterik.
Amoraduok ekustenean
euren buruak loturik,
aen biotzak nunberebaita
egon joazen tristerik.
Pensamentuak leukaela
dolorez mantenidurik,
remedioa bila zitezen,
eurenzat gora kostarik.
Bixeak alkar ekusterako
olzori daue iregi;
ifini daue miraderoa,
bioendako zilegi.